



2017ko maiatzaren 17ko AGINDUA, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, Euskadiko enplegu publikoaren lege-proiektua egiteko prozedurari hasiera ematen diona.

Proiektatutako erregulazioaren beharra eta indarrean dagoen araudia

Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legea, bere garaian, tresna garrantzitsuenetakoa izateko konfiguratu zen, eta, horri esker, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioetan enplegu publikoa kudeatzeko aukera eman du. Lege horren bidez, Administrazio Orokorrak, foru-diputazioek, udalek eta aplikazio-eremuan sartzen ziren gainerako erakundeek arau-esparru bera izan dute, "funtzio publikoaren euskal eredia" eratzeko, zioen azalpenean azaltzen zenez.

Denborak aurrera egin ahala, lege horretarako zenbait aldaketa onartu behar izan ziren, esate baterako, azaroaren 7ko 16/1997 Legea. Baina beste lege berri batzuk onartzea ere eragin du: otsailaren 25eko 1/2004 legea, Kidegoak eta Eskalak Antolatzea; uztailaren 17ko 4/1992 lege sektoriala, Euskadiko Poliziarena eta otsailaren 19ko 2/1993 lege sektoriala, unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako irakasleen kidegoa antolatu zituen, edo ekainaren 26ko 8/1997 legea, Euskadiko Antolamendu Sanitarioarena.

Gaur egun, ezinbestekoa da beste arau-multzo bat ere onartzea, herri-administrazioa finagoa eta herritarrekiko hurbilagoa izan dadin aurrerantzean, honako helburu eta irizpide hauen arabera:

Xedea eta helburua

Lege honen xedea da Euskadiko enplegu publikoa antolatzea, haren araubide juridikoa definitzea eta ondo kudeatzeko tresnak so, hori guztia oinarrizko legedian jarrita dauden mugen barruan eta Euskal Autonomia Estatutuan eta Espainiako Konstituzioan aitortzen diren eskumenekin bat, eta euskal funtzio publikoa arautzea nahiz langile publikoen araubide juridikoa zehaztea.

Arauaren xedea da, hortaz, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren legearen testu bategina onartu zuen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua kontuan hartzeaz gain, herri-administrazioek giza baliabideak eta enplegu publikoa kudeatzeko behar duten modernizazioari bide ematea, herri-administrazioa finago eta zorrotzago ibiltzeko.

Euskal enplegu publikoaren kalitate instituzionala hobetu nahi baita, oinarrizko berrikuntza-elementuak txertatuz, enplegu publikoaren instituzioa profesionalizazio-maila handikoa eta inpartziala izan dadin, eta lortzen dituen emaitzen ardura hartuko duena, herritarrei ahalik eta zerbitzu onena emateko.

Proposatutako arauketaren edukia.

Lege honek ahalik eta aplikazio-eremu objektibo eta subjektibo zabalena definitu beharko du, nola aplikazio-eremu horretan sartuko diren administrazio, entitate edo erakundeentzat, hala administrazio, entitate eta erakunde horien zerbitzura dabiltzan era bateko edo besteko langileentzat.

Euskal enplegu publikoaren organoen eta horien eskumenak arautuko ditu lege honek, bai eta zuzendaritza publiko profesionalaren irizpide orokorrak nolakoak izango diren euskal herri-administrazioetan. Enplegu publikoa eta bere egitura antolatzeke instrumentuak funtsezkoak izango dira, batez ere, lanpostuen analisia eta jardunaren ebaluazioa. Lege-egitasmo honek, lehenengoz aipatzen du karrera profesionalaren oinarria, garapen profesionaleko graduatan eta karrera profesional bertikal nahiz horizontalean bermatuta. Karrera profesionala aplikatzeko, ezinbestekoa izango da, sine qua non, erregelamendua taxutzea.

Horrez gain, enplegatu publikoak nola hautatu eta prestatu behar diren arautuko du lege-egitasmoak, funtzionario nola izan eta nola galdu izaera hori, lanpostuak nola hornitu eta langileak nola mugitu batetik bestera, ordainsarien sistema eta betebeharrak nahiz eskubideak nola antolatu, zer-nolako jokabidea izan behar den, zer bateraezintasun dauden, zer diziplina-araubide izango den, negozioz kolektiboa nola eraman, euskal enplegatu publikoei hizkuntza-normaltasunak nola eragiten dien, eta funtzionarioen egoera administratiboak zer-nola diren.

Bideragarritasun juridikoa eta materiala

Lege-egitasmo honek badu bideragarritasun juridiko nahiz materiala, Euskadiko Autonomia Estatutuak definituta daukan eskumenen banaketaren arabera (10.4 artikulua).

Onartuko den arauak lurralde historikoetako foru-organoen eskumenak errespetatu beharko ditu; Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatutuaren 37. artikuluan eta Espainiako Konstituzioaren lehenbiziko xedapen gehigarrian onartuta dagoen foru-bermeen arabera. Era berean, antolamendu juridikoak onartzen duen toki-administrazioaren autonomiaren esparrua ere errespetatu beharko du.

Ordenamendu juridikoaren gaineko ondorioak

Araua onartzen denean indargabetuta geratuko da 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa -16/1997 Legeak, azaroaren 7koak aldatua-, eta aldaketa batzuk egingo dira 1/2004 Legean, otsailaren 25ekoan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta honen Erakunde Autonomiadunetako Kidegoak eta Eskalak Antolatzekean.

Proposatzen den aldaketak eragin zuzena izango du zerrenda honetan adieraziko diren arauetan:

- 36/1990 Dekretua, otsailaren 20koa, langilegoaren gaietan eskuduntzak aitortzeari buruzkoa (1990ko martxoaren 8ko EHAA).
- 208/1990 Dekretua, uztailaren 30koa, Euskal Administrazio Publikoen Kidego eta Eskalen baliokidetasuna zehazten duena (1990eko abuztuaren 16ko EHAA).

- 75/1983 Dekretua, otsailaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren eta haren mendeko erakunde publikoen zerbitzura dauden langileen erregistroa sortzekoa.
- 190/2004 Dekretua, urriaren 13koa, Euskal herri-administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzekoa (2004ko urriaren 27ko EHAA), irailaren 12ko 170/2006 Dekretuak aldatua (2006ko irailaren 26ko EHAA).
- 207/1990 Dekretua, uztailaren 30ekoa, Euskal Administrazio Publikoetako Funtzionarioen soldatei buruzkoa (abuztuaren 16ko EHAA), gerora arau hauek aldatua: abenduaren 22ko 343/1992 Dekretua (abenduaren 30eko EHAA), azaroaren 19ko 267/1996 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetako funtzionarioen ordainsariei buruzkoa (abenduaren 5eko EHAA) eta abenduaren 28ko 452/1999 Dekretua (abenduaren 30eko EHAA).
- 79/2005 Dekretua, apirilaren 12koa, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorreko funtzionarioentzat gordetako lanpostuen ordainsari osagarriak arautzen dituena (2005eko maiatzaren 4ko EHAA).
- 339/2001 Dekretua, azaroaren 11koa, euskal herri-administrazioetako funtzionarioen administrazio-egoerei buruzko araudia onartzeko dena (2002ko urtarrilaren 15eko EHAA).
- 304/1987 Dekretua, urriaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoen zerbitzuko pertsonalaren ordezkatzeko-organoei, hauteskunde-prozesuaren arautzeari, lan-baldintzak zehazteari eta parte-hartzeari buruzkoa (urriaren 9ko EHAA), irailaren 4ko 228/1990 Dekretuak (irailaren 10eko EHAA) eta uztailaren 28ko 328/1994 Dekretuak (abuztuaren 16ko EHAA) aldatua.
- 30/2008 Dekretua, otsailaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako langileen prestakuntza planifikatu eta antolatzeke irizpide orokorrei buruzkoa (otsailaren 27ko EHAA).
- 233/2012 Dekretua, azaroaren 6koa, Xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duena.

Funtzionarioen, lan-kontratadun langileen eta behin-behineko langileen gaiari buruz legearen eremu subjektiboan aipatutako gainerako administrazio publikoen, erakundeen edo organoen arauetara eta hitzarmenei eragiten die.

Horrez gain, administrazio sektorialari eragiten dioten arauetan ere jardungo du.

- 4/1992 Legea, uztailaren 17koa, Euskal Herriko poliziari buruzkoa, gerora 6/2006 Legeak (2006ko abenduaren 15eko EHAA) eta 2/2008 Legeak (2008ko ekainaren 23ko EHAA) aldatua.
- 2/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Unibertsitateko kanpoko Irakaskuntzarako Irakasleen Kidegoari buruzkoa (1993ko otsailaren 25eko EHAA), gerora otsailaren 6ko 1/1998 Legeak (1998ko otsailaren 27ko EHAA) eta abenduaren 19ko 15/2008 Legeak (abenduaren 29ko EHAA) aldatua.
- 1/2017 Legegintza Dekretua, apirilaren 27koa, larrialdiak kudeatzeko Legearen testu bategina onartzen duena (EHAA, 2017ko maiatzak 5koa).
- 8/1997 Legea, ekainaren 26koa, Euskadiko Antolamendu Sanitarioarena.

Arau-proiektuaren aurrekontu-eragina

Euskal Autonomia Erkidegoko arlo publikoaren zerbitzura diharduten langileei aplikatuko zaie dekretu hau; Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren 7. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Memoria ekonomiko bat jasoko da espedientean, ikusteko, ahal den neurrian, arauak aurrekontu orokorretan zer-nolako eragina izango duen. Aurrekontu-eragin hori lege-aurreproiektuak arautzen dituen gai-alorren arau-garapena egitean eta haiek betetzean gauzatuko denez, orduan kuantifikatuko da eragin hori eta horren arabera sartuko da aurrekontuan.

Egin beharreko izapideak eta txostenak

Dekretuaren proiektua idazteko, agindu honetan esandakoa hartuko da oinarri, eta kontuan hartuko dira bilatzen diren helburuetara hobekien egokitzen diren aukera guztiak, bai eta aurreikusitako araudia egoki eta legezko izango direla ziurtatzeko egingo diren kontsulten emaitzak ere.

Lege-proiektua idatzi ondoren, haren testu elebiduna Gobernantza Publiko eta Autogobernu sailburuaren esku utziko da, onartu edo ez erabaki dezan, hori egin behar dela agintzen baitu Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 14an hartu zuen erabakiak.

Generoaren araberako eraginaren ebaluazioaren txosten bat egingo da, horretarako oinarri gisa hartuta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 19. artikulua eta Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiak ezarritakoa. Erabaki horrek genero-eraginaren aurreko ebaluazioa egiteko jarraibideak onartzen ditu eta neurriak hartzen gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak desagerrarazi eta gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko.

Era berean, 8/2003 Legeko 7.3. artikulua arautzen duena betetzeko, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Zerbitzu Zuzendaritzak txosten juridiko bat egingo du, arau-asmoaren funts objektiboa aztertzeke, haren edukia legearen eta zuzenbidearen araberakoa den zehazteke eta araugintza-teknikaren irizpideak betetzen dituen argitzeko.

Indarreko legeriaren arabera, nahitaezko txosten hauek eskatu behar dira:

1. Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren txostena, uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoarenak, 6.1.a) artikulua bidez zuzendaritza horri agintzen dionaren barruan eta apirilaren 11ko 71/2017 Dekretuak, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoak, 17.a) artikuluan arautzen duenari lotuta.
2. Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzaren txostena, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko apirilaren 11ko 71/2017 Dekretuaren 11.c) artikuluan ezarritakoari jarraituz.

3. EMAKUNDE - Emakumearen Euskal Erakundearen txostena, 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, Emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, 19 -22 bitarteko artikuluetan xedatutakoa betetzeko.
4. Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuak -xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duenak- 2. artikuluan agindutakoari jarraituz, xedapen orokorrek euskararen erabileraren normalizazioan zer eragin duten eta hizkuntza arloan indarrean dagoen araudia betetzen duten ala ez argitzeko.
5. Datuen Babeserako Euskal Bulegoaren txostena, Datuen Babeserako Euskal Bulegoko zuzendariak emandakoa, 2005eko azaroaren 28ko ebazpenaren bosgarren artikuluko 3.b) puntuak arautzen duena beteta.
6. Ekonomia- eta arau-kontrolerako txostena, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak emandakoa, aintzat hartuta zer arautzen duten ekainaren 30eko 14/1994 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzkoak, III. tituluko III. kapituluan, eta urriaren 31ko 464/1995 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituenak, eta bat etorrita apirilaren 9ko 192/2013 Dekretuak, Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoak, 4.a) artikuluan xedatzen duenarekin.
7. Lan Harremanen Kontseiluaren txostena, aintzat hartuta zer arautzen duen otsailaren 23ko 4/2012 Legeak, Lan Harremanen Kontseiluarenak, 3.b) artikuluan, aurreko urteetan onartutakoen jarraipena diren aldetik.
8. Euskal Kooperatiben Goren Kontseiluaren txostena, aintzat hartuta zer arautzen duen Euskadiko Kooperatiben ekainaren 24ko 4/1993ko Legearen 145. artikulua.
9. Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen txostena, maiatzaren 17ko 8/2012 Legeak, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearenak. 3.1.b) artikuluan egiten duen proposamena aintzat hartuta, Lan Harremanen Kontseiluari atxikitako gai-alorrak baztertzen dituen aldetik.
10. Funtzio Publikoaren Euskal Kontseiluak emandako txostena, aintzat hartuta zer arautzen duen Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989ko Legearen 8. artikulua.
11. EAEko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena, azaroaren 24ko 9/2004 Legeko 3.1.d) artikulua betetzeko.

Eusko Jaurlaritzako sailei Kontsulta egingo zaie, eta haiek informazioa helaraziko diete zuzenbide pribatuko erakunde publikoei eta lege-aurreproiektu honen eraginpean izango diren sektore publiko gainerako erakundeei, egoki irizten dioten alegazioak egin diezazkieten arau-egitasmoari.

Aintzat hartuta zer-nolako garrantzia duen arauaren eragin-eremuak, foru-erakundekin partaidetza eta kontsultarako izapidea beteko da, hala, araua egiteko prozeduran parte hartuko dute. Horixe bera egingo da EUDELekin eta arauaren aplikazio-eremuan sartzen diren gainerako administrazio publikoekin ere. Era berean, Euskal Funtzio Publikoaren alorrean indarrean den legeak, uztailaren 6ko

6/1989 Legeak, VI. tituluan arautzen duenari erreparatuta, arau-proiektua izapidetzeko epean ekarpenak egiteko aukera izango dute EAEko enplegu publikoaren alorrean ordezkariak duten organismo eta sindikatuek. Jendaurrean zabaltzeko izapidea egingo da.

Arau-proiektuaren izapideak bukatuta, eta Gobernu Kontseiluak araua onartu baino lehen, prozedura osoaren memoria labur bat prestatuko da. Memoria horretan aurrekariak eta egindako izapideak jasoko dira, 8/2003 Legearen 10.2 artikulua ezarritakoarekin bat etorrira.

Idazketa elebidunerako metodoa

Sistema hau erabiltzea Euskararen erabilpena arauzkotzeko azaroaren 24ko 10/1982 Lege oinarritzaren 8.1 artikulua xedatu duena betetzeko: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko IZO-Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren itzulpena.

Abenduaren 22ko 8/2003 Legeak zehaztuta dauka arau honek ahotan dituen xedapen orokorrak prestatzeko zer prozedura bete behar den.

Beraz, agindu honek ematen dio hasiera arau hau lantzeko prozedurari, zeinak ezinbesteko baitu haste beretik erabaki formal bat hartzea araua egitearen bidez kotasanari buruz. Erabaki hori ez da betekizun formal hutsa izango, egitekoa den arauaren beharri eta bideragarritasunari buruzko hausnarketa baizik.

8/2003 Lege horrek 4. artikuluan ezarri duenez, xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko da. Hasierako aginduaren betekizunak eta gutxieneko edukia ere ezarri ditu.

Adierazitakoaren ildotik, eta aintzat hartuta Gobernuari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26.8 artikulua zein Xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 4. eta 5. artikuluek diotena, honakoa

XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Prozedurari hasiera ematea

Euskal Administrazio Publikoaren Lege Aurreproiektua egiteko prozedura hasteko agindua ematea Agindu honetan finkatutako helburuak eta irizpideak betez:

Bigarrena.- Izapidetzeko organoa izendatzea

Funtzio Publikoko Zuzendaritza izendatzea goian aipatutako legegintzako prozedura izapidetzeko ardura duen organoa izateko.

Hirugarrena.- Legesarea lankidetzazabaltzea

Agindu hau Legesarea izeneko lankidetzazabaltzea, xedapen orokorrak izapidetzeko jarraibideak onartu zituen Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakian xedatutakoa betez.

Laugarrena.- Prozedura

Zer kontsulta egin adostea, eta honen bidez taxutu nahi den arau honen edukia nahiz helburuari ondo egokitutako testua idazteko beharrezko ikerketak eta txostenak eskuratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko maiatzaren 17a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO.